

KLASIKO BAT ALCARAZ MENDILERROAN

Alcaraz mendilerroa Albaceteko probintziaren mugaldean dago, hiriburutik hego-mendebaldera. Modu berean, Albaceteko probintzia bera ere Castilla La Mancha autonomia-erkidegoko azken-putza, ipurdia, izan daiteke. Galeria, autonomia-erkidego hori kontsidera daiteke Espainiako ahaztuena, "España vaciada" termino entzutetsuaren isla garbia. Beraz, esan genezake gaur kontatu behar dizuedan ibilbidea egiteko lekutako puntara joan garela balina... mundenko beste puntara joan beharriz ikarrik! Eta, sinets egidazue, inguru horrek ere, badauka zer kontatu.

TESTU ETA ARGAZKIAK



Ibon Murua Azkuneaga

Alpino Tabirako kide, egun, mendi taldearen Katala hiru hilabeteetakoan ardurra duen eta kide bat. Bidezidorra ditu gustuko, natura zoharkatzen edota zeharkatzen iban duten bidezidorra. Batez ere oinez egin ditu, nahiz eta, tartean-tartean, hizkidea erabilitzten duen.



Almenarilla eta Almenara arteko galur-lerroa, Iteera egin eta humengoa egunen

Ibilbide hau klasikotzat izendatu dut jakin barneko abenetan horrela deu. Dakikan gauza bakarra da, sarean hainbatetik kontatzentzu duen ibilbide zirkular hau egin izana eta wifiloc-era ere askok igo dutela. Eta, egia esan behar bada, ibilbide horrek badeauka beregozkiotza: Albacete probintziako hirugarren mendi altuenera igotzeko aukera edukiztea, alegia. Berau dugu Almenara, bere ia 1800

metroekin. Bai, sinets izedadazue, lautada amaiagabeko bat baino gehiago da Albacete!

RIÓPAR VIEJO ETA "REALES FÁBRICAS"

Baina, ibilbideko puntu altuenaz gain, irteera puntuak ere, muino txiki baten gainean ierden agertzen den. Riópar Viejok

alegia, bere sorpresatxoak dakin. Hasieran, "España vaciada" aipatu dut eta orain, hustua izan den herriko batez mintzo naiz.

Aspaldiko kontua da hau, XVII mendeko, zehazki. Riópar "berria" jatorrizko herriak 5 km-ra aurkitzen da, eta "zaharrean" turismora bideratutako ostatuak dira nagusi. "Berraren" garapena, jatorrizkoaren gainbeherarekin batera, 1772. urtetik au-



Almenara, Portillo de los Perros Lopatik

rrera eman zen. Garai harten sortu ziren, Juan Jorge Graubner austriar ingeniariren ekimenetan eta Carlos III. erregaren babesarekin, "Las Reales Fábricas de San Juan de Alcaraz" izeneko industria-azpiegiturak, egungo Riopar dagoen lekuaren inguruan-tako lehengai eta baso-halabide ugarietik, eta sare hidrografiko oportuak, bultzatu zuten ingeniarri hori brontze eta letoizko objektuen ekoizpenera bideratutako Espainiako lehen fabrikak (eta munduko bigarrenenak, ala jainal) bertan eraikitzen. Rioparren bertan, apurka-apurka berrizten dabiltsan, eraikinen orubearen, horri lotutako museo interesgarria aurkituko duzue: gaurko ibilbidearen osagarriapartal.


TRANSHUMANTZIA BIDEETAN GORA

Botak jantzi, GPSa piztu, Riopar Viejotik itzulinguru txiki bat egin eta errepidea jaitsi gara. Bertatik tarte txiki batean jasaituz, El Noguerón auzora heldu gara.

Berau zeharkatu, eta erreka batera heldu bitartean, baso-pistek hartu dute lekukoa. Horiek amaitzean, "Arroyo de las Fuentecillas" erreka baten sortutako trokar-tean gora abiatu gara, aldatsa hasi da 1000 metroko altueran gaude eta Almenararak 800 metro gehiago dauzka, beraz... badakigu zer daukagun surrenik! Kasu honetan, gondorrean ez bezala, eskertu dugu eguna freskotik eta lainotutik hasi izana.

erreka baterik bat egin bezain laster egin dugu bat, baita ere, IGNko mapetan "Cordel de la Almenara" legez izendatzen den bidez karekin. Hori omen da, goiko bazkei probetxua ateraz, Andaluzia Garaia eta Levente artean transhumantzian ibiltzeko erabilizan den bideetako bat. 50. hamarkadako mapek bide horri "vereda" deitzeak ere pistak ematen dizkiu. "Vereda" da, hain zuzen ere, Mestako Legediaren arabera (aziendadunen biltzarrak, non hezikunde eta basizkaren inguruko erabakik hartu eta horridura a mankomuneko saltzen zuten), azienden transhumantziarako espreski zehaztutako bidea.

Hemen konturatu gara baita ere, irteera puntutik bidea erakutsiz, egun batzuk barru egingo den trailbaten ibilbidea markatzeko zintak lagun ditugula (bai, Albaceten ere trailak egiten dira!), beraz, agian zortea





Río Par Viejo

eduki eta, momentuz, GPSa alde batera utzi ahalko dugu.

Gorantz goaz gelditu barik, iparraldeantz. Altuera hartu ahal desagera z doa basoa, biluzten ingurua. 1450 metroak harrapatu ditugularik, bideak, trackak eta trailaren zintek eskumara egiten dute, bat-batean. Heldu gara 2 km luze den gailur-lerroa!

Cordel de la Almenara, zintakgildari



ALMENARAREN BILA

Ingurua ederra da, eta are ederragoa izango zen. Iainoa horren temati jami izan ez balitz. Horren isla dira, kontaketa hau laguntzen duten irudiak... hoberek ezin ateral. Lainoen konplizitatearekin gorde-gordeka dabilta Almenarilla eta Almenara: orain apur bat muturra atera, orain ezkutatu... Paisaiaz ezin, eta bideaz gozatu beharko dugu horrenbestez. Aringarri moduan, hotz sentsazioa dugula (non eta Albaceten!) eta, beraz, ezin go gineña denbora luzean geldirik egin paisaia dastatuz. GPSari begirada bat bota diugu. Almenarilla (1679 m) tontorraren harri moltsok, behintzat, ihes ez egiteko. Apur bat behera egin, eta "Portillo de los Perros" (1586 m) mendi-lepora jaitsi gara. Bertan, kuku bat egin digu Almenarillak, kamera presti

Gailur-lerroan aurraera jarraitu dugu, gorantz, Almenararen bila. Uste baino urrunago dago. Marba guztietan gertatzen den moduan, esperotako gailuma ez da aurrean ilustratzen duguna (lainoak uzten badigu behintzat), horren ostean dagoena baino. Ezkutaketa jarraitzen du Almenarako erpin

geodesikoak! Horren bila, traillaren zintak ere amaitu dira, hunrongo fase batean markatzen jarraitzenko asmoan edo, eta GPSra jo behar izan dugu berriz. Zaitasun txikiko iraganbide bat edo beste gaindituta (zailegoa gaurko egoeran), heldu gara, azkenik, eguneko helburu nagusira: Almenara (1796 m).

Lainoen konplizitatearekin gorde-gordeka dabilta Almenarilla eta Almenara

Almenarak, arabieraz, "argia dagoen leku" esan nahi omen du, eta "almenarak" ziren toki garaietan arrisku ez ohartaratzeko piztutako suak. Gaur tontomean argi gutxi daukagu, lainoa, ikuspegia eskasa, eta, egia esan, su txikiren bat piztea ez zitzagun txarto etorrako: fresko dago, arroparik soberan, ez! Zeozer jan eta beherantz goaz.

TRES CALARES BIDEZIDORRA

Almenaran behera, harri moltsok eta PR marka gutxi batzuek gidatzen gaitu zte,

xendra piko eta labainkorrean behera. Horiek pista batera atera gaituzte (1641 m). Bertan gaudela, joan-etorri bat egin dugu "Puente Pino Muchachos" deritzon uraskarra, ibilbide zirkularrean aur rera jarraitu aurretek. Berragertu dira trailaren zintak eta azaleratu GR marka berriak. Horiek izango ditugu gidari ia-ia Riopar Viejora bueltatu bitartean.

Marka zuri-gorriak Tres Calares ize-neko GR baten parte dira. Bere baitan biltzen ditu, GR 66 (Sendero Castellano-Manchego) ibilbidearen Riopar-Tus etapa bizkarrezur legez erabilita, bera-nen hinu aldaera zirkular, "calar" (kare-harría ugaria den inguru) bakoitzeko bana. Guri suertatu zaiguna Calar de la Osera izan da. Aldi berean, eta 50. hamarkadako mapen arabera, Alcaraz eta "Reales Fábricas" lotzen zituen ibilbidea ere badugu hori.

Errekasto ederrean behera eroaten gaitu, xendra txiki eta freskoetan zehar

Ibilbideak, "Arroyo de los Endrinalas" errekasto ederrean behera eroaten gaitu, xendra txiki eta freskoetan zehar. Miguel Serrano eroritako kortsioaren parean utzi beharko dugu uraren konpainia. Orain hasi da eguzkia apurka-apurka inteten, eta



Trokartsen gora

Bestegarai bateko eraikinen hondarrak



orain egin digu kuku, lehenengoz egun guztian, Almenara bihuniak.

Trailaren zintek eta GR markak basoan barrena eroaten gaituzte, "Crujetillas" mendateko errepide zaharra zeharkatzen dugu eta basoan jarraitzen dugu. Gero eta eskasagoak dira GR markak eta trailaren zintak, gure bidetik urrunten dabilzala iruditzen zaigu. GPSaren ordua berriol!

Aparatuak basoan behera bideratu gaitu izoztegi edota karobi itxura hartu diogun hondatutako eraikin bakaren bat edo beste pasatuta. Hartaintzarekiko pista zabal batera irten gara eta hontik zuzen jo dugu Riopar Viejoraino. 17 kilometroko distantzia, 1100 metroko desnibela eta 5 h. 30 min. inguruko ibilaldia (geldialdiak barne). Non, eta Albaceteko lautada amaiagabeoan!